

## **UBAKO ELIZACHOAN,**

### **ON DOMINGO AGIRRE JAUNARI.**

---

Birjiña Ama, emen zaudena  
 aldariaren aurrian,  
 aingeruchoak zure kontuan  
 dituzula chit urrian;  
 lagun zadazu mundu ontako  
 nere bizi laburrian,  
 bigotzetikan eskatzen dizut  
 belaunkaturik lurrian.

Zerutik ziñan mundura jachi  
 pekatariyarengana,  
 ta aldaretik deitzen diguzu  
 alderatzeko zugana;  
 ezagutzendet zer ongillea  
 zeran guretzako ¡Ama!  
 orrengatikan aldera nator  
 eskeintzera nere izana.

Mancharik gabe izandu zera  
 menderaturik subia,  
 erakutsiya laja zenduben  
 guk bear degun bidia;  
 aldaretikan erakutsitzen  
 diguzu orain legia,  
 esanaz: Beti maitatutzeko  
 miragarrizko fedia.

Zenbat mirari egin dituzun  
mundu ontan orain ta len,  
guzti guztiyak dauzkagu ondo  
gordiak gure barrenen;  
eskatzen dizut ¡Ama maitea!  
iltzen naizenian emen  
zeruan zure mantupe ortan  
ar nazazula lenbailen.

Bitarte ontan eman gaitzazu  
betiko zure graziya,  
gorde dezagun federante  
len guri erakutsiya;  
labur-laburra izan dediyen  
mundu engañagarriya,  
gero irichi zagun betiko  
zeruetako gloriya.

JOSÉ ARTOLA.

